



# 700 danboor eta 100 musikari 5 urtean

Gaur hasiko dira bixintxoak eta bihar egingen dute danborrada Hendaian. Manolo Alkaiaga Besta Komiteko presidentek «Lapurdin parerik gabeko» ekitaldirako gonbita luzatu die Oarso Bidasoko herritarrei [4-5]

## **Oarsoaldea erakargarri bihurtuz**

Eragile publiko zein pribatuek turismo mahaia sortu dute [6-7]



## **'Zomorroak' film laburra**

Lander Garro idazlea zinema munduan murgildu da [10]

# BOGA

## Brankatik Garikoitz Lekuona



# Baratzak bizirik (II)

**H**ondarribia mendeetan zehar nekazarien herria izan da. Hala aditzera ematen dute honako datuek:  
1.787 urtea, 2.351 biztanle. 352 Portuan (eta ez Marinan), 857 harresi barruan eta 1.132 baserrietan. 1.841 urtea, 2.291 biztanle. 399 Portuan, 603 harresi barruan eta 1.289 baserrietan. 1.900 urtea, 4.345 biztanle. 1.117 Portuan, 1.086 harresi barruan eta 2.142 baserrietan.

Baina gehiengoa izanda ere, bigarren mailako herritarak izan ziren. Murrutik kanpo bizitzeagatik ezin zuten udaleko kargudun izan, ezin zuten ezta parte hartu ere hauteskundeetan. Mugaketa horiek saihesten zituztenak baserri handien jabeak eta aberatsenak ziren; beste etxe bat izaten baitzuten murrubarruan.

Gainera, gerretako zorrak kitatzeko, udalak herri-lur zati handiak saldu behar izan zituen eta aberatsenak erosi zituzten, gero maizterrei alokatuz. Eta halaxe, jabe izan gabe, maizterrak ziren hamar baserrietatik zortiztan bizi zirenak.

Gerora baserriak desagertzen joan dira eta beraiekin baserritarrak. Hirigintzaren bitartez landa lurra *zibilizatu* dugu eta baserritarra hiritartu. Hori bai, estatubatuarrek arma txikitzaile berriei bortizki menperatutako indio tribuen izenak jartzen dizkioten bezala, guk hondartzeko makinek birrindutako baserrien izenak jartzen dizkiogu bizitegiei eta industri eremu berriei, ekinzaren kontzientzia txarra eramangarriagoa egiteko.

Iraganeko gertaerak kontra izan dituzte baserritarrek eta desagertzearen den kultura eta bizimodu baten ikur bihurtzekotan dira. Noiz eta, paradoxikoki, guztiok ekologia gora eta behera ahotan gehien darabilgun garaian. Eta paradoxikoa diot zeren ekologia zerbaitek ordezkatzaren badu hoberen (Eko *oikos*: etxea eta Logia *logos*: eza-gutza), hori baserria baita. Izakia eta bere ingurumenaren arteko zubia. Landa-lurreko euskal lantegiak. Eta

baserritarrak bertako langileak. Ofizioa ederki ezagutzeaz gain, naturaren ezagutza duten eta beraren transmisioaren berme.

Horregatik, beharrezkoa da Hondarribiko baserrien bideragarritasun ekonomikoa, soziala eta teknikoa aztertzekeo prozesua martxan jartzea. Eta udalako prozesu hau sostengatzea. Egitasmo konplexua, metodologia bat eskatzen duena.

Metodologia honen bitartez prozesu parte hartzaile bat abiarazi beharko litzateke honako galderei erantzuteko: Bideragarria al da? Beharrik ba al dago? Nahiko oinarri bildu al dezake proiektuak, Hondarribiko gizarte-eragile eta norbanakoen inplikazioa aktibatzekeo? Zer nolako bitartekoak beharko litzuzke?

Baserriak eta hondarribiarrok sortzen dugun komunitatea ardatz hartuz, eraldaketa egitasmoa sustatu beharra du Hondarribiko Udalak. Auto-eraketa, elkartasuna, iraunkortasuna eta euskaltasuna ardatz izango dituen eraldaketa egitasmoa. Eta sinergiaren bitartez, eraldaketa prozesu honetan, bestelako gizarte eragileekiko konexioak landu: merkatariak, ostalariak, arrantzaleak...

Udal asko hiri baratzak bezalako aisiarako ekimenak martxan jartzen ari dira. Baloreen jarri nahian dabilta, desagertzea ahalbidetu duten hori bera. Horregatik, berandu baino lehen, lehenengo sektorearen garapen integrala ipar duen eraldaketa bultzatu beharra dago udal-txeetatik. Zeinak garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala ahalbidetuko duen.

Gauetik egunera bikingoen herri izatetik pintxoaren herri izatera pasa nahi da. Arrantzaile herri izatetik (hainbat mendez baserritarren herri izanagatik ere) zerbitzuen herria izatera. Bata edo bestea aukeratu beharra ezinbestekoa balitz bezala. Bata izateko bestea desagertzea beharrezkoa balitz bezala. Eta ez da horrela.

Saltokietan kanpoko produktuak lehenesten ditugu, eta bertako sagarrak eta barazkiak baserrietan, merkaturatzeko kanal egokirik gabe, usteltzen uzten. Ferrarien koloreko kontserba latatan Castro Urdialeseko atuna saltzen. Eskoletan gure seme-alabek panga eta izoztutako barazki uniformeak jaten. Eta auskalo nongo produktuak erabiltzen ditugun pintxoak sukaldatzeko.

Horren aurrean betidanik inguratu gaituen lurraren onena behar dugu. Jatorritik mahaira zuzenean datorrena. Bitartekaririk gabeko prezio justuan. Garaian garaiakoa eta bertakoa. Ingurugiroa errespetatuz. Artisautzako eta kalitatezkoa. Hori ere ongizatea baita!

## Kale Nagusitik Ane Badiola



# Urtarrilaren hamaseia

**I**nkesta baten arabera, urtarrileko hirugarren astelehena da urteko egunik tristeena. Badirudi urtea hastearekin batera, deprimitu egiten garela. Badirudi, azala zuri edukitzeak, Gabonetan turroi gehiegitxo jan izanak eta neguko hotzak tristetu egiten gaituela. *Urteko egunik tristeena* omen da urterileko hirugarren astelehena. Ez bigarrena, ez laugarrena; hirugarren astelehena. Ederra bota dute oraingoan ere! Nola aurreikus liteke zein izango den urteko egunik tristeena urtea hasi aurretik? Urte amaieran, bederen, jakin liteke hori, baina hasieran?

Inkestagileen datu esanguratsu eta interesgarri horri kasu eginda, urtarrilaren 16a izan da aurtengo egunik tristeena. Bitxia da nola izan litekeen egun bat hain desberdina zuretzat eta zure ondokoarentzat. Batentzat urteko egun tristeena dena, urteko egunik zoriontsuenetakoa da bestearentzat.

Hilaren 16an, herriko plazara hurbildu eta begirada bat bota nion bertan zegoen jendeari. Pozik zegoen tabernari gaztea, haren urtebetetze eguna zela eta, zorion hitzez eta musuz gainezka baitzegoen. Pozik zegoen unibertsitateko azken azterketa egin zuen ikaslea, denbora askoan ez baitzuen liburutegia berriz zapalduko. Pozik zegoen berrogeita hamar urteko gizona, bi urtez langabezian egon ostean lana eskaini ziotelako. Triste zegoen anbulategi atariko agurea, eskuan zeramatzen informeez ez baitzieten albiste onegirik ekarri. Negar batean zegoen bere alabaren hiletatik atera berri zen emakumea, urte eta erdi besterik ez zuen alaba agurtu zuelako. Zapore gazi-goza zuten herriko hainbat gaztek, Auzitegi Nazionalak absolbitu egin zituen arren, haien alboan bidea egin zuten beste hainbat gazte kondenatu baitzituen. Aldi berean poza eta tristura sentitzea ere ez da atsegina izaten. Triste zegoen bost urteko haurra, haren urtebetetze eguneko oparia ez baitziztzaion batere gustatu. Tristura eta poztasuna ere erlatiboak dira batzuetan...

Zilegi al da Euskal Herriko biztanleentzat urteko egunik tristeena zein den esatea? Nola egiten da hori? Nork neurtzen du poztasuna? Nork neurtzen du tristura? Inkestak inkesta, lasai egon eta lasai egin lo, irakurle, urteko egunik tristeena pasa da eta.

### BOGA Diruz laguntzen duten erakundeak

**Udalak:** Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia  
**Erakundeak:** Gipuzkoako Foru Aldundia - Eusko Jaurlaritzza Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiindiko Partzuergoa

**Zuzendaria:** Urko Etxebeste  
**Kudeatzailea:** Maika Tameron

**Koordinatzailea:**  
Eihartze Aramendia  
**Produktzio arduraduna:**  
Itsaso Garayar  
**Argitaratzailea:**  
Oiartzualdeko Hedabideak S.L.  
ISSN 2174-7482

**Lege gordailua:**  
SS-68/2011  
**Egoitza nagusia:**  
Santa Klara, 22. 20100,  
Errenteria-Orereta  
**Telefonoa:**  
(0034) 943 34 03 30

**Webgunea:**  
boga.hitza.info  
**Posta elektronikoa:**  
boga@hitza.info  
**Publizitatea:**  
(0034) 647 35 42 54  
nmujika@bidera.eu

## Gilda, antxua ta piperraz losu Mitxelena

### 2.087 URTEKO SAGARDOTEGI DENBORALDI HASIYERA



## zeLezolo? Joseba Etxegoien



## Arrastoez

**U**rtea asmo on berriz hasi dugu. Bueno, berriz betiko asmo onez. Eta urte berrirako asmo on zahar horien artean, aurten ziur, inguruari arreta handiagoa jartzea. Ingurukoekin harreman goxoa lantzea eta inguratzen naunenarekiko sentikor izatea landu behar dut. Hemen eta orain gertatzen ari zaidana bizi eta sentitu nahi dut. Eta ingurukoekin partekatatu.

Zeinen polita gelditu zaidan! Tira, ideia polit hau praktikara ekarrita, BOGARako ideia bila, ezinbestean, inguruari pixka bat erreparatuta, zera bururatu zait: ze beharra izaten dugun arrastoa uzteko. Gure bazterretako paretei begiratu besterik ez da egin behar, izen, sinadura, aldarrikapen eta bestelako idatzi edo marrazki pila aurkitzeko.

Nerabazaroko maitasun aitortzak aurki daitezke; normalean rotuladorez idatzita, sprayez baino sarriago behintzat. Betiko laguntasun zinak ere bai, gaztelaniaz gehienak baina baita ingelesezko *never* esamoldea erabiliz ere. Etsaitasun adierazpenak ere, nola ez, aurkitzen dira sail honetan, birao osoak edota HP inpresoren propaganda egiten duten laburdura bidez adieraziak. Arrasto zehatzak, izen-abizenez hornitutakoak gehienak.

Politikara bideratutako arrastoeak, berriz, pertsona jakin baten askatasuna edota kolektibo oso baten amnistia eska dezakete. Orokorrak dira esloganak gure nazioari dagokionean: independentzia edo kolore ezberdinetako errepresioegileen kanporatze eskeak, adibidez.

Iruditzen zait, hala ere, gisa honetako pintadak erdi borrotuta daudela, ezagutu zituztela garai oparoagoak. Beste euskarri batzuk bihurtu dira, beharbada, aldarrikapen horien kokaleku. Oarsoaldeko gazteen aurkako aste honetako sententzia, horren lekuko. Nik behintzat, kaleko

Ze beharra izaten dugun arrastoa uzteko. Gure bazterretako paretei begiratu besterik ez da egin behar, izen, sinadura, aldarrikapen eta bestelako idatzi edo marrazki pila aurkitzeko. Nerabazaroko maitasun aitortzak, betiko laguntasunak zinak...

paretetatik baino gehiago, sareko hormetatik jaso baitut horren berri.

Kalean, gainera, garai batean bideojokoetan ikusten genituen graffitiak tokia kendu diete lehengo pintadei. Tunel eta zubien jabe egin dira kolore biziko marrazkiak. Lezon, ekologisten muralen batek edo bestek egiten die itzal.

Baina guztien artean gehien ikusten ditudanak sinadurak dira. Norberak baino ulertzen ez duen zirriborroa, inguruko bazter ezberdinetan erreplikatua, *dena delakoa hemen izan zen* adierazi nahian. Ez dute graffitiaren edo muralaren lana eskatzen, ez dira hain politikak, esanahi handirik ez dute besteontzat, baina gure egoeraren arrastoa utzi nahia asetzen dute.

Baina zer ari naiz ni hemen, paretetan idazten ari direnen arrastoa utzi nahia aztertzen, nola eta paretan beharrezko paperean idatziz. Zer da ba hau, arrastoa utzi nahia ez bada? Demonio ar astoa!

Baina guztien artean gehien ikusten ditudanak sinadurak dira. Norberak baino ulertzen ez duen zirriborroa, inguruko bazter ezberdinetan erreplikatua. Esanahi handirik ez dute, baina gure egoeraren arrastoa utzi nahia asetzen dute

# «Bixintxoak oso indartsu hasten dira»

## Manolo Alkaiaga Hendaiako Besta Komiteko presidentea

Gaur hasiko dira Hendaiako Bestak, Oarso Bidasoan antolatzen diren neguko jai garrantzitsuenak. Berokia jantzita eta aterkia eskuan, hendaiarrak irrikitan daude Pellot korsarioa noiz iritsiko zain.

**Asier Perez-Karkamo** Hendaia

Duela bost urte hasi ziren Hendaiako danborrada egiten eta dagoeneko 700 danbor jotzaile baino gehiago elkartu dira, bixintxoetako ekitaldi parte hartzaileena bilakatu. Manolo Alkaiaga (Baiona, 1953) herriko 12 elkartek osatzen duten Besta Komiteko presidentea da, bestetako arduradun nagusia. Oarsobidasoak guztiei gonbita egin die, hendaiarrek neguan giro beroa nola sortzen duten ezagutzera hurbil daitezten (ikus asteburuko ekitaldiak 14. orrian eta egitarau osoa [hendaia.hitza.info-n](#)).

**Besta Komiteko buru zaren aldetik gaur hasiko dira urteko egun politenak, Bixintxo Bestak. Zer prestatu duzue gaurko?** Gaur hasiko dira bestak, bai. Gazteekin hasiko gara, tortilla lehiaketarekin, Merkatu Zaharrean. Eta hortik lasterrera Pellot gure korsarioa omenduko dugu. Kaneta portura iritsiko da, eta bertatik Hendaiako zazpi eskoletako haur koskor guztiak abiatuko dira, bakoitzak bere eskolako Pellot eta Neskatxarekin.

**Pellot bat eta Neskatxa bat aukeratuak izan dira Herriko Etxera joateko. Aurten ikastolako bi ume izanen dira, Ekain Martin eta Mañoli Chohobi, eta lan txiki bat dute: lehenbizi Hendaiako gazte guztiei solas bat egitea, eta ondoren gonbidatu bat hartuko dute.**

**Eta zein izango da gonbidatu hori?**

A! Hori ez baitakigu oraindik, sorpresa da. Badakigu hendaiar famatua dela, gaztea, eta munduan zehar ibilia; animaliak ere baditu. Orduan, orain asmatu.

**Horren ondoren emango zaie hasiera ofiziala 2012ko Bixintxo Beste...**

Bai, zazpietan alkateak irekiko ditu jaiak, bertsolari gazteen saioaren ondoren. Eta jaien hasieraren ondoren lehen ekintza ofiziala izanen da, danborradaren entsegua. **Bixintxoetako beste ekitaldi nagusietako bat gaur bertan izanen da, Hostoak ikuskizuna, Beltzeniako Daniel Ugarte pilotalekuan. Sarrerarik geratzen al da?** Ez, ez da geratzen; 1.000 sarrera jarri genituen saltzeko eta astelehen goizean saldu ziren azkenak. Aurten lehen aldiz Internet bitartez saldu dugu eta arrakasta handia izan du; joan den asteburuan ehundik gora sarrera saldu ziren modu horretan. **Pilota partidarako ere hasia da sare bidezko salmenta, eta arrakasta handiarekin hori ere. Larunbata danborradaren eguna izanen da. Arratsean da ekitaldi nagusia, baina goizetik aritzen dira taldeak...**

Goizeko jai bost auzoetan ospatuko da, danborradan hamabi taldek parte hartuko dute, eta goizez horietatik zazpi auzoetako animazioa indartuko dute. Eta arratsaldean danborrada, bai. Aurten nahi dugu zazpietatik zortzietara talde guztiak elkarrekin aritzea. Aurtengo talde gonbidatua Oñatikoa da, eta Donostiako Union Artesanakoak ere etortzekoak dira. Herriko plazako ekitaldia polita egiten da.

**Danborrada bera bezain jendetsua ari da bilakatzen ondorengo afaria. Antolatzeko lan handia ematen al du?**

Ez da erraza; danborrada gauza berria da, hazten ari dena eta antolatzen ikasten ari garena. 700 lagun bilduko gara. Iaz berandu egin zen afaria eta aurten 21:00etan

egin nahi dugu. Sarrerak ari dira saltzen elkarrean eta hiri barneko ostatueta. Ostatu bakoitzak elkarte baten sarrerak saltzen ditu, hau da, nahi baduzu elkarte jakin bateko kideekin batera afaldu, elkarre horri dagokion ostatuan erosi behar duzu txartela. Helduentzako sarrerak 16 euroan saltzen dira eta txikientzat 10 euroan, 14 urtetik behera. Ez da dirua.

**Bost urte besterik ez ditu danborradak eta dagoeneko bestetako ekintza nagusia ez bada, nagusienetakoa bihurtu da. Jendetsuena bai.**

Nik uste dut Ipar Euskal Herrian ez dagoela horrelakorik; Baionako jaietan ere ez dira biltzen horrenbeste danbor eta musikari. 700 danbor izanen dira larunbatean eta 100 bat musikari aparte, bost txaranga-tan. Ezin dugu Donostiarekin konparatu, noski, edo beste tradizio handiko danborradekin, baina bai esan dezakegu Frantziako Estatuan ez direla beste inon horrenbeste danbor batera elkartzen.

**Entzun izan dut igandean atsedean beharra izaten duzuela, baina egitarauan ez diozue atsedeneri tarte handiegirik utzi. Etzi ere ekitaldi pila bat duzue: Bidasoan Kantuz, txotx-a, kontzertua...**

Beno, danborradaren ondoren gorputzak atsedena behar du, egia da hori, baina herriko bestak dira eta burua bestarako prest dago. Nahi duena meza nagusira joan daiteke, pixka bat bezperakoa pasatzeko, eta meza ondoan euskal kantuan aritzeko aukera izanen da. Ez da Hendaiako Kantuz izanen, Bidasoan Kantuz baizik, Errepublikan plazan Irun, Hondarribia eta Hendaiako kantu zaleak elkartuko baitira.

**Eta txotx ekitaldia. Astigarragakoaren ondoren Hendaiak sagarno denboraldia hasteko ekitaldia.**

Bai, guk herriko bestetako lehen igandean egiten dugu beti. Bidasoko Sagardo Zaleen Elkarrekin muntatzen du osorik eta joan den urteko Sagarno Egunean prentsaturako sagarrekin eginiko sagarno dastatzeko aukera izanen da. Eta arratsaldeko elizako kontzertua ez nuke ahanzi nahi. Herriko musika elkarte eta abesbatza guztiek antolatzen dute eta eliza betetzen da teiaturaino. Aurten, gainera, Euskaldunen Etxea taldea ere ariko da; Hendaiako Eskolarteko Euskal Kantu Txapelketan 3. saria irabazi duten Intzurako 1. mailako eskolako haurrak dira.

**Hilaren 28an, bestetako bigarren larunbatearekin, herri kirol jaialdia antolatu duzue Daniel Ugarte kiroldegiarekin. Asko maite dituzue herri kirolak!**

Bai, Hendaiako Bestetako bigarren asteburuko larunbatean ezin da falta herri kirol jaialdirik, eta ez dira desafioak eta marka batzuk hausteko saiakerak faltako. Gainera Lurrana azokaren errebantxa antolatu dugu, eta Urruñako HKB taldeko kirolari hoberenen arteko lehiaketak izanen dira.

Eta Igandeko kultur eta sukaldaritza el-

«*Hostoak* ikuskizunerako 1.000 sarrera jarri genituen salgai eta denak saldu dira, asko sarean»

«Lapurdin eta Frantziako Estatuan ez dago horrenbeste danbor biltzen dituen ekitaldirik»

«Barraka batean emakume bat larru bizirik zegoela idatzi zuten, eta sekulako lerroa egin zen»



[ASIER PEREZ-KARKAMO]

karteen arteko sukalki lehiaketarako dirudenez badira dozena bat elkarte Irundik eta Hondarribitik etorriko direnak, eta beste hainbat herritakoak ere izanen dira. Zazpigarren ekitaldia da. Lehiaketan presatutakoarekin herri bazkaria egingen dugu [Turismo Bulegoan erreserbatu behar da, 15 euroan], eta oso giro onean burutuko da. Modu polita da bestak bukatzeko. **Bi asteburuetatik zein da gehien maite duzuna?**

Galdera zaila. Ezberdinak dira, baina biak ditut gustuko. Lehen asteburua parte hartzaileagoa da: besten hasiera Pelloten desfilearekin, danborrada... Bestak oso indartsu hasten dira eta giroa berezia da hendaia guztiontzat. Bigarren asteburua bestelakoa da: pilota profesional jaialdia, herri kirolak... Ikusteko edo entzuteko da gehiago. Gainera, bigarren asteburuan, eta oro har bixintxoetan, hautatu behar da, denera ezin baita iritsi. Zentzu horretan, bestetako egitarauan denen gusturako ekintzak daudela iruditzen zait.


**Iruditzen al zaizu ibaiaren beste aldekoek bixintxoak ezagutzen dituztela?**

Lehen bazekiten. Garai batean asko etortzen ziren, beste aldean debeku garaiak zirelako, hemengo barrakak modernoagoak zirelako... Familia osoak etortzen ziren hemengo giroa ezberdina zelako. Jende asko etortzen zen, bai Irundik baita Hondarribitik ere. Eta sekulakoak egiten zituzten! Gogoratzen naiz behin herriko hormetan idatzi zutela zera, emakume bat barraka baten barruan zegoela larru bizirik, eta kristoren lerroa eragin zuten, ez dakizu noraino iristen zen lerro hura!

Baina gauzak aldatu ziren, eta Irunen eta Hondarribian bestelako festak antolatzen hasi ziren. Orain dagoeneko ez dira asko etortzen direnak, eta zer antolatzen dugun ere askok ez dakite.

**Zer esango zenieke inoiz bixintxoetan egon ez direnei?**

Hendaiako bestak ezberdinak direla; negukoak izanik ezin ditugu ekitaldi asko kanpoan antolatu, baina egiten ditugunak parte hartze handia dute, eta barneko ekitaldiak maila handikoak dira. Herri txikia gara, 15.000 pertsona gaude bakarrik, baina nahiko programa polita eskaintzen dugula uste dut. Plater fuerteak badira, hasi danborradatik, pilota partidak, *Hostoak* ikuskizuna, herri kirolak... nik uste dut baikoitzak ahal duela bilatu bere gustuko aukera. Eta gauza bat esango dizut, eta ez da harrokeria: hemen giro polita dago beti, ez da bortizkeriarik, ez aurpegi txarririk, beti giro polita. Lehen esan dizut aspaldi ibaiaren beste aldekoak asko etortzen zirela, eta nik uste bide hori berreskuratu behar dugula. Etortzen badira, ziur heldu den urtean ere errepikatuko dutela.



Mendi ibilbideek, Pasai Donibanak eta San Markoko gotorlekuak erakartzen dituzte turista gehien Oarsoaldera. [GOIATZ LABANDIBAR, BOGA, ASIER PEREZ-KARKAMO ]

# Donostia alboko eskualdeaz harago

Oarsoaldea Garapen Agentziak sustatuta, abenduaren 19an eskualdeko turismo mahaia sortu zuten. Eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzaz du oinarri, eta proiektu bateratu bat osatzeko prozesuan lan egingo dute elkarrekin.

## Aizpea Amas

Eskaualdean turismoa sustatzeko elkarlana dela bidea uste du Oarsoalde Garapen Agentziak, eta helburu hori markatuta, lanean hasi da: eskualdeko turismo mahaia osatu du, eta lehenengoz pasa den abenduaren 19an elkartu zen. Eragile publiko zein pribatuek osatutako mahaia da, eta batik bat partaidetza sustatu eta bakoitzaren beharrak eta asmoak jasoko ditu.

Garapen agentziako Turismo Saila aspalditik ari da eskualdea helmuga turistikoa izan dadin lanean, eta bertako azpiegiturak indartzen eta hobetzen. Orain, urrats bat ematea erabaki du, eta Eusko Jaurlaritzak lehiakortasun turistikorako ematen dituen diru laguntzen harira, turismo mahaia eratzea erabaki du. Mahai horren bidez, egitasmoa eragile pribatuekin batera landuko ditu, eta denek helburu berbera lortze aldera egingo dute lan.

Gipuzkoako helburu turistikoa handiena Donostia da, baina eskualdea hiriburutik gertu egotea aukera bezala ikusi behar dela iritzi dio Asier Mujika Oarsoalde Garapen Agentziako presidentea: «Donostiatik hain gertu egoteak abantailak eta desabantailak ekartzen ditu; alegia, edo xurgatzen gaitu edo ematen digu. Kontua da baliatzen jakin behar dugula gertutasun hori, eta ez bakarrik izatea erakargarri prezioak merkeago izatea».

Halako gaiak eta beste batzuk aztertzeke lehen bilera abenduan egin zuten. Sektore publikoari dagokionez, garapen agentziako hainbat arlotako ordezkariak gain, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Behemendi Landa Garapen Elkartek ere ordezkari bana eraman zuten. Sektore pribatuari dagokionez, berriz, ostatuek, jatetxeek, taberna eta kafetegiek, enpresa turistikoei eta museoek ordezkari bana eraman zuten. Eider Calderon Turismo Saileko arduradunak azaldu duenez, irekiak daude beste sektore bateko eragileak ere mahaira batzeko. Proposamena luzatu eta aukera hori aztertuko dutela jakinarazi du.

# 26.676

**Bisitariak:** laz igo egin zen Oarsoaldeko turismo bulegoetara egindako bisitarien kopurua. 2010ean 24.769 bisitari pasatu baziren, 2011n, 1.907 gehiago, 26.676 bisitari guztira.

Lehen eraketa bilera horretatik Jaurlaritzaz zein aldundia «harrituta» geratu zirela azaldu du Mujikak: «Aurretik talde batzuk dinamizatzen aritu dira, eta eraketa bilera oso zentratuta ikusi zuten. Aurretik landua zegoen gaia».

Behin taldea eratuta, urtean gutxienez bitan elkartuko dira gaiak joratzeko. Calderonen esanetan, bertan eskualdeko dinamizazio planaren ekintzak jarriko dituzte martxan: «Horretarako, bai Oarsoaldeatik eta baita erakunde publikoetatik ere ekintza horiei buruzko informazio zehatza emango diete eragile pribatuei. Horiek, bestalde, aukera izango dute euren egitasmoak, zalantzak eta arazoak eztabaidatzeko».

Turismo mahaia, izan ere, arlo horretan lanerako jarri dituzten hiru mahaietako bat baino ez da. Mailakatuta dauden arren, funtzionamendua transbersala da. Goren dagoen mahaia Oarsoalde Garapen Agentziaren Administrazio Kontseilua da. Gero dator turismo mahaia, eta azkenik, mahai sektorialak daude. Horiek, turismo mahaia urtean bitan egiten dituen bilerez gain, beste bilera batzuk egin behar dituzte bakoitzak bere sektoreko enprekin. Horrela, turismo mahaian hitz egiten denaren berri emango diote sektoreari. Era berean, sektoreak proposatu dituen gaiak bilduko ditu ordezkariak horiek turismo mahaira eramateko.

Modu horretara, epe motzean eskualdean turismoa sustatzeko lanean ari diren eragile guztiak elkartu eta elkarri martxan jartzen ari diren egitasmoen berri ematea da asmoa. Aurrera begira, berriz, erakunde publikoak eta enpresa pribatuak elkarlanean aritza.

## Donostia 2016

Oraindik egitasmoa martxan jarri besterik egin ez duten arren, eta aurretik lan handia duten arren, testuinguru mesedegarria du Oarsoaldeak. Horren adibide da Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu izendatu izana. «Horri etekin bat atera behar zaio. Errebote efektuaren bidez, hara joaten diren turistak hona ere etorriko dira», adierazi du Mujikak.

Ohiko turistez gain, zine industria ere erakartzea espero du garapen agentziako presidentea, Zinealdea proiektuaren bitartez: «Gure eskualdeak toki oso txikian denetik biltzen du: kostaldea, mendia, barnealdeko mendiak... Alegia, kanpoalde ezberdinak grabatzeko aukera ematen du toki oso txikian. Testuinguru horretan dago planteatuta Zinealdea. Hala, hiru plato profesional biltzen ditu, eta Oiarzungo Lintziringaina Industrialdean dago». Orain proiektua geldirik dagoela zehaztu du, baina «izarrezko produktu»

bezala ikusten Mujikak zine industria erakartzeko.

Zinealdea proiektua berria den arren, eskualdeak baditu jendea erakartzen du-

## Funtzionamendua transbersala da, eta azpisektoreak izango dira gaiak proposatzeko

## Donostia Kultur Hiriburu izateari etekina atera behar diotela adierazi du Asier Mujika presidentea

ten betiko txokoak ere: Pasai Donibane, Arditurriko meategiak, mendi ibilbideak eta San Marko Gotorlekua dira horietako batzuk.

**Mikel Kintana** Arritxuloko arduradunetako bat

# «Oarsoaldea oso aberatsa da, baina ez da ongi saldu»

## A. Amas

Arritxulo Oiarzungo aterpetxea turismo mahaian dagoen arlo pribatuko ordezkarietako bat da. Mikel Kintana (Hondarribia, 1973) Arritxuloko kideari ideia interesgarria iruditu zaiolako sartu da ekimenean, eta Oarsoaldea turismo gune bezala bultzatzeko turismo mahaia erabilgarria izango delakoan dago.

## Zergatik erabaki zenuten turismo mahaian parte hartzea?

Printzipioz, ideia interesgarria iruditzen zait, behingoz, gauzak behetik gora egingo direlako. Oiarzungo daukan gauza on bat da eskaintza handia daukala: Herri Musikaren Txokoa, Arditurriko meatzeak, parke naturala, geologia museoa, Arritxulo... Kontua da bakoitza doala bere aldetik. Orduan interesgarria da indarrak elkartzea, eta turismo eskaintza bateratu bat egitea. Azkenean, asmoa da eskaintza bereziak egitea bezeroari.

## Zeintzuk dira eskaintza berezi horiek?

Adibidez, *pack*-ak osatzea. Agian, familia bat asteburu batean etortzen baldin bada, aukera dauka minetatik pasatzeko, eta gero izango du aukera parke naturala eza gutzeko, hainbat ibilbide egiteko... Aukera hori hor dago, baina ez dago eskaintza poltsa bezala. Alde horretatik, oso interesgarria iruditzen zait, gaur egun jendea

## Parte hartzaileak

### Sektore publikoa

#### Oarsoaldea Garapen Agentzia:

Asier Mujika presidentea, Fernando Nebreda gerentea, Eider Calderon Turismo Saileko zuzendaria eta Aitziber Larrarte Kalitate ordezkaria.

**Eusko Jaurlaritzak:** Miren Etxebeste Turismo Sailburuordetzaren ordezkaria.

**Gipuzkoako Foru Aldundia:** Xabier Elizegi Turismo ordezkaria.

**Besteak:** Behemendi Landa Garapen elkartea.

### Sektore pribatua

**Arlo bakoitzeko ordezkari bat:** Ostatuak, jatetxeak, taberna eta kafetegiak, museoak, turismo aktiboa eta zerbitzu turistikoen enpresak.

dena egin eman behar zaiolako. Aukera bat izango zen ere, jendea hainbat *pack*-eko aukera ematea, eta berari gehien interesatzen zaiona aukeratzea.

## Abenduaren 19an elkartu zineten lehenengoz. Zein inpresioekin atera zineten?

Inpresio onarekin atera nintzen, batetik, behingoz, gauzak behetik gora egingo direlako, eta bestetik, behingoz, Oarsoaldeari garrantzia emango zaiolako. Donostiak badu eskaintza, baina baita Oarsoaldeak ere. Jendea etortzen denean Donibane eta San Pedrorra harrituta geratzen da, eta baita Aiako Harria parke naturalarekin ere. Gauza da dagoen eskaintzak ez daukala oihartzunik.

## Zentzu horretan zein alderdi hobetu behar dira?

Oarsoaldeak azaldu behar du. Oarsoaldea oso aberatsa da, baina ez dela oraindik behar bezala saldu. Alde horretatik, mahai horiek oso interesgarriak izango dira.

## Donostia izan da saldu dena, ez?

Gertatu izan zaigu Aste Nagusian eta halako kasuetan, etorri zaizkigula, guk diogun moduan, *soberakinak*, tokirik bilatu ez duen jende hori, eta azken finean, hoge minututan Donostian zaude. Donostiara joanagatik ere, beste aukera bat eman ahal zaio bezeroari, ekonomikoagoa.

**Donostia 2016 ere aukera bat izango da.** Atera behar zaio ahal den zuku gehien.

## Kareletik Urtzi Argibay



## Kubo, ze kubo polita!

**G**aur, Donostiako eguna dugu. Donostia-rrontzat egun handia, eta zergatik ez gipuzkoar askorentzat ere. Oarsoaldean ere, nahiz eta donostiarrak ez izan ospatzen da egun hau. Pasaiaiko La Anunciata ikastetxea hartuko dugu hizpide. Eskola honetan, urtero ospatzen dute Donostiako eguna. Dakizueenez, Pasaia eta Donostiaren artean gauza bitxi bat gertatzen da; espaloia-aren alde bat, Donostia da eta bestea Pasaia. Ba kontua da, La Anunciata ikastetxea Donostiako eremuan aurkitzen dela eta horrexegatik ospatzen dute. Baina, ahaztu al dira Pasaia eta Donostia udalerririk epaitegietan izan direla, mugen auzia dela eta? Ez da pixka bat kontraesana? Bestalde, San Sebastian Egunaren harira beste hainbat ikastetxek ere danborrada egiten dute, baina ez dira Donostiara joaten.

Bestalde, Errenteriako Udalez hitz egin nahi dut aste-ko kolaborazio txiki honetan. Udala, hainbat hedabideekin bildu da berdintasuna sustatzeko helburuarekin. Ekimen zoragarria iruditzen zait; izan ere, hainbat aspektuetan zoritxarrez garai honetan, emakumeen presentzia urria da eta hori nola edo hala aldatu beharko litzateke. Oraindik lotsagarria da bizi dugun garaian, 2012an, parekidetasunaren kontua hizketagai izatea. Horrek bermatuta egon beharko luke aspalditik, dudarik gabe, gizon eta emakumeak berdina gara eta edozein lan egin dezakegu.

Errenteria-Oreterekin jarraiki, atez ateko gaineko eztabaida demokratikoa eskatu dio udalari PSE-EEk. Tira, oraingo zabor bilketa ezarri zenean, nork galdetu zigun ea ados ginen edo ez? Zergatik orain atez atekoa galdetzea eskatzen dute? Nik uste dut atez ateko bilketa sistema sistemarik eraginkorrena dela. Oiartzun jarriko dut adibide. Oiartzunen jarri zenean, alderdi politiko jakineko bozkatzaileek, ez zuten nahi atez ateko bilketa sistema ezartzea; oso garesti zela zioten. Garestia agian bada, baina eraginkorrena ere. Jakin badakigu, atez ateko bilketa sistemarekin birziklatu egiten dela eta hori behar da, mundu txukun bat izateko. Ez dugu behar makroerakailurik. Nik, ore-retar bizilagun bezala, gustura hartuko dut atez ateko sistema Oreretan.

## Zoom Asteko irudia



### Eskema zaharrak


**A**stehenean jakinarazi zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak Oarsoaldeko hamazazpi gazteren kontra zabal-dutako prozesu judizialaren erabakia. Sei irte eta sei irte eta erdi arteko kondenekin, eta beste hamar bitu egin zituen. Oarsoaldean epaia ez du ia inork onartu, eta horren kontra azaldu dira norbanako, eragile eta erakunde asko. Horren erakusle da Eleak mugimenduak herenegun egin zuen agerraldian (irudian) esan zuena.

Atxiloketak, inkomunikazioa, espetxealdia, epaiketa, epaia, mobilizazioak, erreazioak... Euskal Herriko politika-gintzan azken hamarkadetan ohikoa izan den eskema da hori, eskema zaharkitua erabatu. Hala ere, oraindik irauten du prozedura horrek, nahiz eta *aro politiko berria* ahoz aho ibili. Horren guztiaren ondorio da beste sei gazte es-petxera joango direla, Euskal Herriatik urruti dauden presondegiara ziurrenik, eta euskal gatazkaren ondorioek oraindik nabarmen iraungo dutela.

Gatazka horren gaineko *sukaldeko lana* egiten ari denik badagoela diote batzuek. Denontzako jaki onak baino, bidezkoak egin ditzatela sukalde horietan.

[URKO ETXEBESTE]





[ISABEL MANCEBO BALDA]

# «Erakargarri egiten zait galtzailearen figura»

## Lander Garro Idazlea

‘Zomorroak’ film laburra da oreretarraren lehen murgiltzea film laburren munduan. Gidoia idatzi eta zuzendari eta aktore lanak egin ditu.

### Erik Gartzia Errenteria-Orereta

Lander Garro (Errenteria-Orereta, 1975) ezagunagoa da literatura munduan ibiltze-agatik. Orain, baina, ikus-entzunezkoen bidea urratzen hasi da, *Zomorroak* film laburrekin. Gidoia idazteaz gain, Antton Aldekoarekin batera zuzendu du filma, eta aktore lanak ere egin ditu. Miren Gaztañaga irundarra eta Eñaut Gantxegi lezoarra lagun izan ditu arlo horretan. Interneten ikus daiteke bideoa ([vimeo.com/34889374](https://vimeo.com/34889374)). **Literaturan aritu zara. Orain filma. Zergatik saltoa? Nola sortu zen proiektua?**

Juantxo Sardonekin eta Antton Aldekoarekin izandako hitz-aspertu luzeetatik sortu zen ideia. Hirurak genbiltzan Sautrelan, EITBn, etengabe elkarri belarria janez, egin behar genuela zer edo zer, ze, esan behar baita hirurak garela zinema zale eroak. Zinema zale eroak bi aukera ditu: zerbait egiten saiatu, edo etsipenez hil. Guk lehen hautua egin genuen. Egun batean Juantxo etorri zitzaigun esanez bazela lehiaketa bat, aitzakia ona izan zitekeena elkartzeko; noiz izango zen galdetu nion, badakizu, agendan begiratzeko, eta abar, eta hara non esan zidan: ‘Etzi!’. Egun hartan, lanetik etxera nentorrela, buruari bueltak ematen hasi eta orduantxe asmatu nuen Pablaren pertsonaia (protagonista), eta, maitasun istorioaren lehen zertzeladak ere hantxe heldu zitzaizkidan. Filmaren amaiera ere okurritu zitzaidan.

**Frikiez, zomorroez, aritu zara. Zer dela eta hautatu duzu gai hori? Norbaiten influentziarik-edo izan al duzu?**

Beno, frikia galtzaile mota bat da, besterik ez, eta horixe da filmaren aitzakia, edo arrazoi nagusia. Maitasun istorioen barruan, beti behar izaten da elementu dramatikoren bat... Galtzailearena oso ohikoa da, hau da, maitatu nahi eta ezin duena, baina ahal izateko *mugan* bizi dena, zorte pixka bat beharko lukeena, eta abar. Berezi erakargarri egiten zait figura hori, ikuslearen sinpatia erraz esnarazten duelako, seguruen inoiz geu ere hala sentitu izan garelako. Gogoratu Bergerac-eko Cyranoren kasua, edo Woody Allenen adibidea, zeina, zatarra izan arren, beti lortzen duen nesken arreta pizteko trikimailuren bat. Frikia, beraz, galtzaile modernoa izan liteke, galtzaile urbanoa, nahi baduzu, oso gure garaikoa. Badut nolabaiteko identifikazioa friki mota batekin, zeina izan litekeen diskoak eta komikiak kolekzionatzen dituen morroi bakarti bat, zertxobait babesgabea, ez oso estimatua eta liburuetan kontsueloa hartzen duena. Ez zait horren figura arrotza egiten. Azkenik, istorio honen beste ezaugarria da sinpletasuna: bitarteko gutxirekin egiteko istorioa behar genuen, eta neurri horretara egokitu ginen. Gauza oso oinarritzakoak behar baitira maitasuna zer den eta nola gauzatzen den azaltzeko: bi aktore. Eta beti da interesgarri, guztiok maitatu izan dugulako, edo maitatu nahi dugulako.

**Pertsonen dituzten harresiek kezkatzen al zaituzte?**

Bi maitaleek elkar ezagutzen dutenean, elkarri gezur handiak kontatzen dizkiote, elkar liluratu nahi dute, eta horretarako beren onena azaldu behar dute, eta akatsak ezkutatu. Bertuteak handitze horretan, ohikoa izaten da, bereziki mutilen artean, neskekin arretatsu agertzea, jakinmin

handiko, alegia, entzuten dakigula erakustea. Baina gero gezurra izaten da, eta, behar bada, ez dugu ikasi nahi. Horixe esaten dio neskak Pablari azkenean: ‘Ez zaude bakarrik, tio’. Orduan, galdera da: hautsi ote daitezke zinez gure artean dauden harresiak? Egia ote da besteari *ematen* gatzai-kiola, edo dena da fartsa hutsa?

**Alde handia al dago liburu bat idatzi eta film baten gidoia egitearen artean?**

Beno, alde handia dago, eta apenas dago alderik. Fikzioa eraikitzeko, lehen drama aipatu dizut, eta aipatu beharko nizkizuke pertsonaiak ere. Horiek dira fikzioaren osagai nagusiak, beraz, istorioa prestatze-

«Zinema zale eroak bi aukera ditu: zerbait egin edo etsipena. Guk lehen hautua egin genuen»

«Egia al da [maitaleek] besteari maitaleari dena *ematen* diola ala fartsa hutsa da dena?»

ko material bera izaten dute idazleek eta gidoilariak. Alde handiena, agian, da gidoilariak testua idatzi eta besteren eskuetan jarri behar duela berak sortutakoa, eta gero egongo direla bitartekari asko, kameralaria, aktoreak, eta bakoitzak testu horren interpretazio ezberdinak egingo dituela. Zinemak beti dauka menpera ezin litekeen zerbait, literaturak ez bezala. Azken aldagaia irudiak dira. Zineman erakutsi egiten da dena, eta horixe da funtsa: ikusten dena. Literaturan, ordea, irakurlearen baitan dago hitzak irudi bilakatzeko gaitasuna, gustua, nahia, desioa, edo dena delakoa, eta idazleak ezin du ezer egin (edo gutxi egin dezake) hori baldintzatzeko, testua definizioz baita itsua.

**Zer moduz aktore lanak egiten?**

Beno, guztiok gara pittin bat aktore, eta ongi dago garaiotan oroitaraztea, hain justu Gabonak pasatu diren honetan. Egia da, ordea, beti izan dudala pailazokeriak egiteko joera bitxia, agian besteen arretaren premia izan dudalako, edo auskalo. Kontua da ez dudala inoiz aktore izateko pausorik eman, eta hori ere niretzat nahiko misterioa da, esan bezala, bokazioa soberakoa dudalako. Hala ere, han eta hemen aktore aritutakoa naiz, beti lan ‘amateur’-etan. Kamerari batera beldurrik ez diot. Hori da dudaren dohain nagusia. Nola nahi, aktore aritzea lan ederra da benetan. Lastima, nire aldamenean zeuden *benetako* aktoreen aldean nire gabeziak hain nabarmen geratzea, ezta?

# Iruzkinak, 'Berriketan.info'-tik

## Erredakzioa

**D**atorren astelehenetik aurrera *Berria.info* eta *Hitza.info* en eremuko edizio jarraituetako albiste guztietan egin ahal izango dira iruzkinak *Berriketan.info* sare sozialaren bidez. Hots, irakurle/erabiltzaileen parte hartze-ari beste bultzada bat eman nahi diogu.

Ohiko iruzkinen ereduaren ordean, *Berriketan.info* sare soziala baliatuko du Berria Taldeak aurrerantzean. Hau da, *Berria.info*-ko albisteetan edo *Hitza.info*-ren eremuekoetan bere ekarpenak eginez parte hartu nahi duenak, *Berriketan.info*-ko kide egin beharko du.

## Zergatik?

Uste dugulako egiazko gune parte hartzaile autoerregulatua egiteko biderik onena dela.

Aspalditik da Berria Taldeko sareko guneen nahi eta kezka irakurle/erabiltzaileen parte hartzea bultzatzea, baina baita ere anonimotasunean babestuta eztabaida zuzena zabar dezaketena saihestea ere.

Horregatik, orain arte moderatua zen iruzkinen sistema Berriaren kasuan, eta horregatik, albiste gutxi batzuetan baino ez zen zabaltzen iruzkinak eta ekarpenak egiteko aukera: guztietan irekitzeak kudeatu ezinezko lana emango lukeelako. Hitzetan, aldiz, irekita zegoen iruzkinak egiteko aukera albiste guztietan.

Parte hartzea *Berriketan.info* sare sozialetik bideratzea, ordea, kanpoko esku hartzerik gabe eztabaida moderatzeko modua izan litekeela uste dugu, azken batean, erabiltzaileak erregistroa egin behar baitu, eta nolabaiteko nortasun digitala eratzen baitu.

Beraz, iruzkinak edizio jarraituko web-gunean albiste guztietara zabaltzeko aukera ematen du.



Erabiltzaileak erregistroa egin beharko du, nolabaiteko nortasun digitala eratu. [BOGA]

Gainera, *Berriketan.info* sare soziala bera ere indartzen du astelehenetik aurrera martxan jarriko dugun sistemak.

## Tresna egokia

Uste dugu sare sozial hori oso tresna egokia dela aktualitatearen gainean euskaraz jardun nahi duten guztientzat, izan kazetari edo ez.

Egiazko gune parte hartzaile autoerregulatua egiteko biderik onena dela uste dugu

Hasieran albisteetan iruzkinak egitera mugatuko dena, pixkanaka has daitekeela *Berriketan.info*-n bere ekarpenak egiten, BERRIAKO eta HITZETAKO kazetariekin eta bestelako adituekin informazioa eta iritzia partekatzen. Funtsean, gaurkotasunaren eraikuntza horretan bere alea jartzen.

## Sakelakoetarako

Sistema berriarekin batera, datozen egunetan prest izango da *Berriketan.info*-ren sakelakoetarako bertsioa. Horrek asko erraztuko die erabiltzaileei nonahitik *Berriketan.info*-n parte hartzea.

## 'Berriketan'-etik, OARSO BIDASOKO HITZETARA

- Orokorra**  
Oarso Bidasoko Hitza:  
[oarsobidasoa.hitza.info](http://oarsobidasoa.hitza.info)
- Herriz herri**
- Oiartzun:**  
[oiartzun.hitza.info](http://oiartzun.hitza.info)
- Lezo:**  
[lezo.hitza.info](http://lezo.hitza.info)
- Pasaia:**  
[pasaia.hitza.info](http://pasaia.hitza.info)
- Erreterria-Orereta:**  
[erreterria.hitza.info](http://erreterria.hitza.info)
- Irun:**  
[irun.hitza.info](http://irun.hitza.info)
- Hondarribia:**  
[hondarribia.hitza.info](http://hondarribia.hitza.info)
- Hendaia:**  
[hendaia.hitza.info](http://hendaia.hitza.info)



Berriketan sare soziala  
[berriketan.info](http://berriketan.info)

## Sofkat proiektua, bertan behera

Softkat Euskarazko Software Katalogoak UEU Udako Euskal Unibertsitatearen eskutik abiatu zuen ibilbidea 2004an. Zazpi urteren ostean, 2012an bere jarduna itxi behar du. Gaur egun, UEUK duen egoera ekonomikoa dela eta, hainbat neurri hartu behar izan dituzte, eta horietako askok, egitasmoetan eragin zuzena dute.

Azaroan *Iparrorratza* orientazio zerbitzua itxi zuten eta oraingoan, Softkatek atek itxi behar ditu: «Ezinezkoa baitzaigu proiektuarekin aurrera egitea».

Webgunea argitaratuta mantenduko dute eta Behatokia atala automatikoki eguneratuko da hilero, baina bestelako edukirik ez dute berrituko.

Hori dela eta, ez dute euskarazko software berririk katalogatuko, eguneratuko edo osatuko. Horrez gain, ez dute softwarearen gvaireko berririk editatuko ezta erabiltzaileen kontsultarik erantzungo ere.

Egoerari buelta ematea espero duten arren, 2012an [softkat.ueu.org](http://softkat.ueu.org) proiektuaren atek itxita mantenduko dituzte.



## 30 orduko lana, 11 minutuko bideoan

Milaka bisitari lortu ditu Dei Gaztelumendi marrazkilari oiartzuarraren bideo batek sarean. *Timelapse* edo irudi bizkortuen teknika erabilia, 11 minutuko bideo batean 30 orduko gorako lana duen marrazketa prozesua laburbildu du. *Post-Apocalyptic Cover Illustration* da izenburua, eta honako helbidean dago: [vimeo.com/31333291](http://vimeo.com/31333291). Aitor lagunari eskaini dio marrazkia Gaztelumendik, eta Ikastolen Elkarteak argitaratzen duen *Xabiroi* aldizkarian argitaratu du.

3D animazio nazioarteko proiektuetan murgilduta dabil egun. Informazio gehiago: [www.deisign.com](http://www.deisign.com).

BOGA@



Ezin hobeto kontserbatu da Blas de Lezoren etxea. San Pedroko gune historikoaren barruan dago. [ASIER PEREZ-KARKAMO]

# Blas de Lezoren arrastoa

San Pedron jaio zen Blas de Lezo marinela. Itsaso borrokaldietatik ezaguna bada ere, hura jaio zen etxeak oraindik zutik dirau Pasaiaiko barrutian, tinko.

## Urko Etxebeste San Pedro

tsasoa, kaia, arrantza... Usain hori du San Pedrok. Batez ere arrantzarekin lotutako jarduerekin lotzen da Pasaiaiko barrutiaren jarduna, besteak beste, Pasaiaiko arrantza ontzi gehienen atsedean lekua bertan dagoelako, eta arrantzaleen lonja —berria egiten ari dira—, San Pedron dagoelako. Baina itsaso jarduera komertzialarekin lotuta ez dauden itsas ekimenekin ere lotura du Pasaiaiko badian dagoen barrutiak. Horien artetik ezagunenak arrauna eta Blas de Lezo dira. Antxon, bere izena duen kalea dago, barruti hori ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du kaleak, Nafarroa etorbidearekin paraleloan.

San Pedron jaio baitzen Blas de Lezo marinel eta itsas borrokari ezaguna. Eta izen hori du itsas gizona jaio zen etxeak. San Pedroko hirigune historikoaren bihotz-bihotzean kokatua dago, San Pedro kale estuan, eta arrantzaleen kofradiatik eta parrokiatik hurbil dago. Silarriz egina dago, eta familiaren armari ederra du horman. Oso ondo kontserbatuta dago. Eraikinak oinplano angeluzuzena du, eta teilatuak, bi isurialde. Eraikinaren alde batek San Pedro kalera ematen du, eta besteak Arraunlari kalera. Etxea ikusten dutenek txundituta ikusten dute, iraganeko arkitekturaren erakusle fidela delako, ikusgarria eta sendoa.

San Pedroko hirigune historikoko elementuetakoa da Blas de Lezoren etxea. Parrokiarekin, hilerriarekin, eta bestelako eraikinekin batera lasai bisitatzeko moduko zonaldean dago.

## Marinela baino gehiago

Ezinbestean hitz egin behar da Blas de Lezo y Olabarrietaz bera jaio zen etxea aipatzerakoan. Batzuentzako marinel fina, besteentzat Pasaiaiko eman duen izenik aipagarriena, askorentzako Espainiako inperioaren sustatzaile eta haren defendatzaile odoltsua... 1689ko otsailaren 3an jaio zen San Pedron Blas de Lezo, eta 1741an hil zen Indiako Cartagenan (Kolonbia). Marinelen familiako zen, eta Frantziako ikaste-

Hamabi urte zituela Frantziako armadarekin bat egin zuen Blas de Lezok

Ordutik, batailaz jositako ibilbidea egin zuen marinel pasaitarrak, 1741ean hil zen arte

txe batera joan zen ikastera hamabi urte zituela. Ordutik, Pasaiatik gutxi agertu zen marinela.

Adin horrekin, Frantziako armadarekin bat egin zuen marinela gazteak, izan ere, Frantziako eta Espainiako armadek bat egin zuten 1701ean, Suzesio Gerrarako. Handik aurrera, batailaz eta gudez jositako ibilbidea izan zuen pasaitarrak.

Horien artetik esanguratsuenetakoa 1704an Velez-Malagan (Espainia) Frantziako eta Espainiako armadek Ingalaterrako eta Holandakoen kontra izan zuten bataila. Sezesio Gerra horretako garrantzitsua izan zen: lehenek 1.500 baja izan zituzten bataila horretan, eta bigarrenek, berriz, 2.700. Historia liburuetan jasota dagoenez, Blas de Lezok «adoretsu» borrokatu zuen bataila horretan, baina bala batek hankan jo zuen, eta horren ondorioz ezkerreko hanka ebaki behar izan zioten. Hori horrela, aurrerago, Patapalo almirante ezizena jarri zioten marinela pasaitarrari.

### Europatik Amerikara

Suzesio Gerra bukatuta, *Lanfranco* ontziren ardura eman zioten Blas de Lezori, eta La Habanara (Kuba) bidea hartu zuen almiranteak. 1920ra arte egon zen bertan. 1725ean Liman (Peru) ezkondu zen, Josefa Pachecorekin. 1930ean, baina, berriz ere Europara itzuli zen, Mediterraneora, Ge-

novako Errepublikarekin Espainiak izan zuen gatazka bat konpontzera.

1732an Oranera egin zuten espedizioaren buru izan zen Blas de Lezo, eta 1734an Espainiako armadaren teniente jeneral izendatu ondoren, Cartagena de Indias defendatzeko hautatu zuten, bertako gobernadore izendatuz, 1737an. Eremu hori defendatzeko batailarik latzena 1741ean izan zen, Ingalaterraren kontrako. Eremua defendatzea lortu zuen, baina urte hartako uztailean hil egin zen, bataila hartan hilda suertatu zirenen gorpuek sortutako gaixotasun bategatik.

San Pedron dago Blas de Lezoren etxea. Marinelaren gorabeherak iritzi asko sortu dituzte, aldekoak eta kontrakoak. Ziur dagoen gauza bakarra da Pasaiak eman duen semerik esanguratsuenetakoa dela, haren jardunarekin ados egon edo ez.

### Nola iritsi

San Pedrorra iristeko Trintxerpe zeharkatu behar da lehenik, eta Euskadi etorbidea jarraitu San Pedroraino. Bertako gune historikoan dago Blas de Lezoren etxea. Donibanetik ere joan daiteke San Pedrorra, motorarekin badia zeharkatuz.



San Pedro eta Arraunlari kaleetara ematen dute etxearen fatxadek. [ASIER PEREZ-KARKAMO]


## ...eta mila hitz Gari Garaialde



### 8 segundo gehienez

**B**azen garai bat argazkiak irauteko egiten zirena. Beti ziren izandako zerbaiten arrasto, iraganaren erakusgarri. Karrete bat amaitzeko egunak behar izaten genituen eta errebelatzeko gutxienez astebete. Gero famili albumean edo tiraderaren batean zahartzen ziren, horitu, hezetu, denbora bizkarrean hartu. Jada ez zegoen zerbait erakusten ziguten argazkiek.

Susmoa daukat gaur egun, argazki askoren bizitza askoz ere laburragoa dela. Telefonoarekin argazkia atera, momentuan ikusi, asko jota argazkian azaltzen diren lagunei erakutsi eta ahantzi egiten dira. Oraindik badagoe-na erakusten digute. 6 edo 7 segundo, ez dute gehiagorik irauten, 8 gehienez.



[GARI GARAIALDE]

# Asteburuko agenda

## Musika

**Errenteria-Oreeta:** Gaur, Sas Sebastian Egunaren haritik, Cristobal Gamon ikastetxeko Haur Hezkuntzako ikasleek Sarrigiren doinuak interpretatuko dituzte. 11:00etan ikastetxetik irtengo dira.

**Trintxerpe:** Bihar, Red Fang eta Yemen-Ra taldeek kontzertua emango dute Mogambo aretoan gauerdian.

**Trintxerpe:** Etzi, Le Singe Blanc taldea ikusteko aukera izango da Mogambo aretoan, 18:30etik aurrera.

**Errenteria-Oreeta:** Etzi, Udal Txistulari Taldeko kideek Fanderia eta Gabierrota auzoetako txokoak alaituko dituzte, goizeko bederatzietatik aurrera.

**Hondarribia:** Etzi, Alde Zaharra eta Amute-Kosta alaituko ditu Hondarribiko Txistu Taldeak, goizeko zortzietatik aurrera.

## Deialdia

**Irun:** Gaur, genealogiaren zaletuak Meakako auzo elkartearen biduko dira, 18:30etik 20:30era bitarte, gaiaren gainean aritzeko. Sarrera libre da.

**Irun:** Bihar, genero indarkeriaren aurkako elkarretaratzeta egingo dute Zabaltza plazan, 12:00etan.

## Ikus-entzun

**Irun:** Etzi, kontsumismoari buruzko bi dokumental proiektatuko dituzte Kabigorri Ateneoan, Acampada Bidasoak antolatuta. *Obsolescencia programada* (51') eta *La historia de las cosas* (21') izango dira jarriko dituzten dokumentalak. 17:30ean hasiko da.

## Literatura

**Irun:** Gaur, Xabier Amurizak *Zamorako apaiz-kartzela* liburua aurkeztuko du Ospitale Zaharreko hitzaldi aretoan, 20:00etan. Aurkezpena Joxean Elosegik egingo du. Hazia Kultur Elkartean 25. urteurrenaren barruan sartzen da aurkezpena.

## Jaiak

**Hendaia:** Gaur, Bixintxoak hasiko dira eta astebururako hamaika ekitaldi antolatuko dituzte. **Gaur: 14:00etan**, haurrentzako patata tortilla lehiaketa eta dantzaldia, Merkatu Zaharrean. **17:45ean**, Pelloten Itzultzea desfilea abiatuko da Kaneta portutik. **18:30ean**, festei hasiera



[BOGA]

**Bi egun eta hiru kontzertu, Trintxerpen.** Bihar, Red Fang eta Yemen-Ra (irudian) taldeek kontzertua emango dute Mogambo aretoan, gauerdian. Etzi, areto berean, Le Singe Blanc taldearen txanda izango da. 18:30ean hasiko da kontzertua.



[KUKAI DANTZA KONPAINIA]

**'Hostoak' ikuskizuna, Hendaian.** Gaur, Bixintxo Jaien haritik, *Hostoak* ikusteko aukera izango da Daniel Ugarte pilotalekuan. Musika, dantza eta kantua uztartzen dituen ikuskizuna da. Musika Oreka Tx taldearen eskutik, dantza Kukai Dantza Konpainiaren eskutik eta kantua Amaren Alabak taldearen eskutik. 21:00etan hasiko da eta sarrerak 12 euro balio du.

emango diete herriko etxeko balkoitik. **19:00etan**, danborradaren entsegu orokorra Herriarteko orkestrarekin eta banderen banaketa. **Bihar: 11:00etatik 15:00etara**, danborrada auzoetan. **17:15etatik 18:30era**, danborrada hiri erdian. **19:00etatik 20:00etara**, danborradaren elkarretaratzeta herriko etxearen aintzinean. **21:00etan**, Hendaiaiko danborradaren afaria Daniel Ugarte pilotalekuan (Prezioak: 16 euro helduek eta 10 euro 14 urtetik beherakoek; txartelak danborradan parte hartzen duten konpainietako arduradunek salduko dituzte). **Etzi: 10:00etan**, txistularien alardea hiri barnean. **10:00etan**, meza San Bixente elizan, Herriarteko orkestraren parte hartzearekin. **11:30ean**, Hendaian eta Bidasoan Kantuz, Errepublikan plazan (eguraldi txarra eginez gero, Merkatu Zaharrean). **12:00etan**, 2011ko Hendaiaiko sagarnoaren aurkezpena, lehendabiziko txotxa. **15:30ean**, Ondarraitz kirol zelaian Stade Hendayais taldea Boucau Stade taldearen kontra (Frantziako Bigarren Mailako txapelketako partida). **18:00etan**, Kontzertua Hendaiaiko abesbatzaren eta musika taldeen eskutik, Euskaldunen Etxea taldearen parte hartzearekin (Hendaiaiko Eskolarteko Euskal Kantu Txapelketaren 3. saria irabazi zuen), San Bixente elizan (dohainik).

## Azoka

**Hondarribia:** Etzi, arte azoka izango da kirol kaian, 10:00etatik aurrera.

## Zirkoa

**Irun:** Gaur, bihar eta etzi, Cirque Amar zirkoa egongo da Ficobako kanpoko apartokalekuan. Gaur, 19:30ean izango da ikuskizuna; bihar, 12:00etan eta 17:00etan; eta etzi, 12:00etan eta 17:00etan.

## Inaugurazioa

**Lezo:** Etzi, Pasaia-Lezo Lizeoaren eraikina inauguratuko dute. 11:15ean, diana izango da Oarsoaldeko dultzaineroen eskutik, herriko kaleetan zehar. 11:30ean, suzuria botako dute Saldise plazan, eta ondoren kalejira ikastolara, dultzaineroenekin. 11:40ean, ikastolan hainbat ekitaldi izango dira: txalapartariak, agurra, hitzaldia, Boxtin, Porrotx eta Boxtonen emanaldia, zinta mozketa eta bisita. Ondoren, Lezoko Guraso Taldeak antolatuta, bazkaria. Lizeo Egunekoaren oso antzekoa izango da.

## Lehiaketa

**Errenteria-Oreeta:** Bigarren urtez, Berdintasun Kontseiluak Mariasun Landa Sariak antolatu ditu. Lehiaketa horrek gizarterako hainbat arlotan emakumeek

## Zinemak

### NIESSEN

#### (ERRETERIA-ORERETA)

##### Jack y su gemela:

17:15; 20:00; 22:45; 01:00 (lar.).

##### La hora más oscura 3D:

17:30; 19:45; 22:30; 00:45 (lar.).

##### Milleniun I: Los hombres que no amaban a las mujeres:

16:30; 19:30; 22:45.

##### Sherlock Holmes. Juego de sombras:

17:00; 19:45; 22:30; 01:00 (lar.).

##### Immortals: 17:15; 20:00.

##### Misión imposible IV. Protocolo fantasma: 22:30; 01:00 (lar.).

##### Alvin y las ardillas 3: 18:00.

##### Un lugar para soñar:

20:00; 22:35; 01:00 (lar.).

### LES VARIETES (HENDAIA)

##### Cheburashka: 15:00 (lar.).

##### Intouchables: 17:00 (ig.).

##### Carnage: 15:00 (ig.); 21:00 (st., lar.).

##### La source des femmes: 17:00 (lar.).

### TXINGUDI (IRUN)

##### Alvin y las ardillas 3: 16:00.

##### Sherlock Holmes. Juego de sombras: 17:45 (lar., ig.); 20:15 (lar., ig.); 22:45 (lar.).

##### Un lugar para soñar: 16:00.

##### La hora más oscura 3D:

18:30 (lar., ig.); 20:30 (lar., ig.).

##### Misión imposible IV. Protocolo fantasma: 22:30 (lar.).

##### Drive: 17:00.

##### Milleniun I: Los hombres que no amaban a las mujeres:

19:00 (lar., ig.); 22:00 (lar.).

##### Los descendientes: 16:00; 18:15;

(lar., ig.); 20:30 (lar., ig.); 22:45 (lar.).

##### Silencio en la nieve: 16:00; 18:15;

(lar., ig.); 20:30 (lar., ig.); 22:45 (lar.).

##### El gato con botas: 16:15.

##### La chispa de la vida: 18:00 (lar., ig.);

20:00 (lar., ig.); 22:15 (lar.).

##### Jack y su gemela: 16:10; 18:15 (lar.,

ig.); 20:20 (lar., ig.); 22:30 (lar.).

### MENDIBIL (IRUN)

##### Jack y su gemela:

16:00 (lar., ig.); 18:00; 20:15; 22:30.

##### Los descendientes:

16:00 (lar., ig.); 18:00; 20:15; 22:30.

##### Sherlock Holmes. Juego de sombras: 16:15 (lar., ig.); 19:15; 22:00.

##### Milleniun I: Los hombres que no amaban a las mujeres:

16:00 (lar., ig.); 19:00; 22:00.

##### Alvin y las ardillas 3:

16:00 (lar., ig.); 18:00.

##### La hora más oscura: 10:15; 22:30.

##### Atraco por duplicado: 22:00.



Milleniun I filmaren fotograma bat.



[BOGA]

### Karlos Saldise gogoan, Donibanen eta Lezon.

Karlos Saldise Batallon Vasco Español (BVEk) Lezon hil zuela 32 urte bete ziren joan den astelehenean eta bihar hainbat ekitaldi egingo dituzte. Saldiseren jaioterrian, Donibanen, lore eskaintza egingo diote. Bonantzan izango da, 10:00etan. Ondoren mendi martxa egingo dute, Lezora. Bertan, bere izena daraman plazan ekitaldia egingo dute, 12:00etan.



[BOGA]

‘Elurrezko panpina’, Irunen. Bihar, *Elurrezko panpina* antzezlan taularatuko du Txotxongilo taldeak. Emanaldia Amaia Kultur Zentroan izango da, 17:00etan. Sarrera orokorrak 4,80 euro balio du, eta 12 urtetik beherakoentzat 3,70 euro. Antzerkiak hotzez dagoen elur panpin baten istorioa landuko du. Bertan, ume guztien laguntza izango du panpinaren arazoa konpontzen saiatzeko.

Errenteria-Oreterari egindako ekarpenaren berri ematea du helburu. Lanak hila- ren 31 baino lehen entregatu beharko dira udaletxeko erregistro orokorrean. Gai- nontzeko informazioa eta oinarriak Errenteriako Udalaren webgunean ([www.errenteria.net](http://www.errenteria.net)) agertzen dira.

### Irteerak

**Irun:** Etzirako Donostia-Pasaia martxa prestatu du Erlaitz mendi taldeak. Hau- rrei zuzendutako ibilaldia izango da. In- formazio gehiago jakin nahi izanez gero, deitu 943 61 17 39 telefono zenbakira edo [www.erlaitz.com](http://www.erlaitz.com) webgunean sartu.

**Irun:** Etzi, Irugurutzetako meatze ingurua ezagutzeko aukera izango da. Oiasso Erromatar Museoak antolatuta,


11:00etan meatze-trena irtengo da. Infor- mazio gehiago eta erreserbak 943 63 93 53 telefono zenbakian.

### Erakusketak

**Irun:** Gal-Alkain izeneko erakusketa ikus daiteke Menchu Gal aretoan. Menchu Galen erretratuek eta Javier Alkain artis- taren lan berriek osatzen dute erakuske- ta. Ostiral eta larunbatetan 18:00etik 21:00era ikusgai izango da, eta igandetan 11:30etik 13:30era.

**Oiartzun:** Maitena Urretabizkaiaren ar- gazkiekin osatutako erakusketa ikusgai dago Garmendi txokolategian.

**Errenteria-Oretereta:** Nekane Lasarte ar- tista donostiarraren lanak ikusteko auke- ra dago Gaztelu ostatuan.



**BOGA**  
astero mugimenduan

